



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2024CONE0003
COD. EXP.

ALKATETZA DEKRETUA

ANA AZKOITIA URTEAGA, AZKOITIKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAK, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985ko Legeko 21.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Urola Komunikazioa Taldea Kooperatiba Elkarteak (aurrerantzean, UKT) Udalarari 2024ko martxoaren 27an egin dio 2024rako dirulaguntza eskaera (Erregistroko sarrera zk. 2130). Eskaera batera enpresak aurkeztu ditu 2024rako egitasmoa eta aurrekontua. Halaber, udalaren eskariz, UKTk 2024ko ekainaren 26an aurkeztu ditu Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak (Erregistroko sarrera zk. 3887).

KONTUAN HARTURIK

Departamentuko zerbitzu teknikoak egindako txostenaren arabera:

“Enpresak 2024ko egitasmoa azaltzeko, honako atalak bereizi ditu: 1. Nor gara?, 2. Aurrekariak, 3. 2022-2024: eskaintza eraldatzeko plana, 4. Gure eskaintza: 2024 eta 5. Udalarari eskaera.

1. atalean kooperatibak dio 2019ko ekainean sortu zela Urola Kostako euskal hedabideak egitura bakarrean bilduz, komunitatearen informazio eta komunikazio beharrei hobeto erantzuteko. Gero taldea osatzen duten hedabideak zerrendatzez gain, azaldu du lantaldea 33 pertsonen osatzen dutela. Bukaeran gehitu du bakarka aurrera nekez egingo zuten 6 hedabideen ordezkari komunikazio talde indartsua dela orain, bere komunitatearen beharrei erantzuteko eta euskarazko komunikabideen sektorea indartzeko aktiboki eragiteko gaitasuna duena.

UKTk aurrekarietan azaldu du kooperatibaren egituratzea, barne antolaketa eta eskaintza hobetzea eta aberastea izan direla lehen urteotako 3 erroka nagusiak. Kooperatibaren egituratzeari dagokionez, enpresak helburu nagusiak bete ditu. 6 hedabide sortzaileaz gain, langileen % 94a kooperatibako bazkide da (33 langiletik 31), kooperatibako organo guztiak antolatuta eta martxan ditu, estatutuak lege berriaren arabera osatuta eta barne araudia adostuta. Beraz, kooperatiba izateko lanak egin ditu. Barne antolaketan dio lan handia egin duela, 6 hedabideen jardura eta lantaldeak bateratzea erroka handia eta konplexua delako eta egindako zenbait lan aipatu ditu. Gehitu du horretarako lagungarria izaten ari zaiola Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren ereduan murgiltzea (Brontzezko ziurtagiria du). Erantsi du harrera eta irteera planak egiteaz gain, pertsonen gaitasunen lanketan arreta jarri duela. Iaz lanpostuen fitxak egin zituen (funtzioak, gaitasunak...). Hurrengo pausua gaitasun horiek hobetzeko sistema diseinatu eta martxan jartzea izango da. Gaineratu du Ikasiz programaren bidez elkarriketetan oinarritutako formazio saioak egin dituela eta elkarriketa horien xedea dela ikustea hobetu beharrekoak non dauden horren arabera aurtengo formazioa planak zehazteko. Azkenik, eskaintzan esan du oinarri sendoak jarri dituela etorriko diren eraldaketei erantzun ahal izateko eta aipatu du bere produktuak ekoizteko eta kaleratzeko tresnak bateratu eta estandarizatu dituela. Gehitu du horri esker eskaintza hobetzeko gai izan dela. Erantsi du paperezko aldizkariak Tokikomeko edizio sistemarekin ekoizten dituela, Hitza aurten sistema horretara pasatuko duela eta webguneak ere plataforma digital horretan ekoizten dituela egun. Horrek eraginkortasunean irabazten lagundu dio.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2022-2024: eskaintza eraldatzeko plana atalean UKTk adierazi du egiturazko iraultza egin ondoren, eskaintza eraldatzen hasia dela. Egun enpresak komunitatean oso errotuta eta atxikimendu handia duten 6 hedabide sortzaileen markak kudeatzen ditu. Baina, irakurle eta bezero gehiagorengana iristeko strategi berriak behar ditu. Horrek marka estrategia berritzea eskatu dio. Hausnarketa eta partaidetza prozesu luzearen ondorioz, UKTk adostu du marka komun bakarreranzko bidea egitea hurrengo urteotan. Prozesuaren xehetasunak 2022an lotu ziren. Prozesua 2023an hasi zen eta bizpahiru urte iraungo du. Kooperatibak dio marka estrategia berria erabat lotuta dagoela komunitatearen atxikimendua lortzeko bide berrien beharrezkin. Azaldu du paperari lotutako harpidetza formulak zaharkituta gelditu direla herritar gehiago erakartzeko eta kidetze molde berriak behar dituela honako oinarriekin: digitalizazioa balioan jarri, pertsonalizazioa, gertuko zerbitzuak eskaini eta proiektuarekiko atxikimendua. Hortaz, kooperatibak marka eraldaketarekin batera 2024an Gukakide, kide bakoitzaren interesei egokitu, baina, marka komunari lotutako kidetze estrategia berria abiaraziko du. Enpresaren asmoa da bezeroa erdigunean jartzea. Bestalde, enpresak erantsi du bere eskaintzaren eraldaketan digitalizazioak markatuko duela bidea eta eduki asko digitalean sortzen dituela, euskarazko hedabideen artean bisita gehien duen komunikazio taldea dela, baina, edukiak zabaltzeko bide berriak jorratu nahi dituela. Komunikazio taldeak 2024an eskaintza digital osoa bilduko duen aplikazioa jarriko du martxan. Horrek UKTri lagunduko dio eduki digitalak balioan jartzen, kidetze digitalean ere garatzeko aukera emango dio, marka komuna indartzeko tresna izango da eta tokiko merkataritzarekin elkarlana egiteko erreminta berria izango da. UKTk edukiak zabaltzeko eta irismen handiago izateko bide berriak urratu nahi ditu. Hori horrela, buletin digitalen bidez enpresak aukera ikusten du egun paperezko produkturik ez duten herrietara edota gaikako produktuak nahiago dituzten herritarrengana iristeko. Podcastak ere aukera bikaina direlakoan dago kooperatiba edukiak audio formatuan zabaltzeko eta entzule gehiagorengana iristeko. UKTk datu kazetaritzan ere murgildu nahi du eta 2024an lanketa horrekin jarraituko du Tokikomenekin. Enpresak sare sozialetarako estrategia bateratua ere landuko du. Orain arte marka bakoitzak bereak izan ditu, baina, hori aldatu eta marka bakarraren potentzialari etekina aterako dion estrategia abiaraziko du 2024an. Bukatzeko atala UKTk dio ikus-entzunezkoetan apustu sendoa egiten jarraituko duela, Erlo telebistako programazioa saio berriei aberasteaz gain, bere hedabide eta kanal digitaletarako ikus-entzunezko eduki gehiago lantzea duela helburua.

Gure eskaintza: 2024 atalean produktu bakoitzaren deskribapena egin aurretik, kooperatibak azpimarratu du digitalizaziorantz egin nahi dituen urratsak gauzatzeko baliabideak beharko dituzenez, asmoa dela aztertzea nola egokitu daitekeen egungo paperezko eskaintza formula berriei lekua egin ahal izateko. Horrelako 1. azterketa UKTk 2022-2023 epealdian egin zuen eta 2024an azterketa horrekin jarraituko du. Ondoren enpresak Maxixatzen, Karkara, Baleike eta Uztarria aldizkarien eta Hitzaren ezaugarriak eman ditu. Gaineratu du Hitza Tokikomeko edizio sistemarekin ekoiztuko duela, produktuaren marka eta ezaugarriak aldatuko dituela eta Guka egunkaria izatera pasatuko dela. Jarraian kooperatibak Guka gehigarriaren eta kaleratzea aurreikusitako beste gaikako 7 gehigarrien berri eman du. Gero UKTk esan du herrietako atariak eskualdeko Hitzarenarekin batera direla duen indargune nabarmenena. Liderra da euskarazko komunikazio taldeen artean. Kooperatibak azpimarratu du internet dagoela bere jardueraren erdigunean eta ahalegin eta baliabide gehienak horra bideratzen dituela eta ekoizpen maila oso altua duela. Gehitu du 4 aldizkariak hilabetekariak izanik, ekoizpenaren % 95a interneterako dela eta Hitzaren kasuan ere, egunerokoan albiste gehienak interneterako ekoizten direla eta herrietako webguneen bisita kopuruak eman ditu. Erantsi du herrietako atariak egun herri horietako hedabide nagusiak bilakatu direla eta Tokikomeko plataforman daudenez, bertako zerbitzuak eskaintzen dituztela. Ondoren Hitzako atariari buruz dio 11 udalerriri erantzuten diela eta 42.000 bisita inguru dituela. UKTk esan du helburua dela atari hori Erlo telebistako webgunearekin bateratzea eta ikus-entzunezko edukiarekin hobeto integratzea. Horretarako, Tokikomeko plataformara eramango du, taldeko atari guztiak teknologia bera izateko. Erlo telebistako webgune bidez, berriz, enpresak ikus-entzunezko edukiak eskaintzen ditu. Zuzeneko emanaldiak egiteko aukera ere bai. Halere, uste du onena dela eskualde mailako atari bakarrean bateratzea. Urrats hori 2024rako eginda egotea aurreikusi du. Bestalde, Zarauzko albisteak lantzen dituen Zarauzkohitza atariari buruz dio hilean 88.200 bisita dituela eta beste



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

herri aldizkariekin alderatuta, erabat internetekoa dela, ez duela paperezko euskarririk. Amaitzeko, telebistari dagokionez, kooperatibak dio salto handia eman duela eta bide horretatik jarraitzea aurreikusi duela. Helburua da kazetaritza formatuak lantzea eta ekoizpen propioaren bolumena areagotzea. Adibidez, Guka magazina berrituko du.

Egitasmoaren aurkezpena bukatzeko, UKTk dio KPIa ikaragarri igo dela azken urteotan eta horrek gastuen garestitzea ekarri duela bere enpresan ere. Beraz, enpresak uste du zentzuzkoa dela urtetik urtera KPIaren igoera aintzat hartzea dirulaguntza zehazterakoan, bestela galera handia izan daitekeela, batik bat egun bizi duen testuinguruan.

Aurrekontuari dagokionez, kooperatibak sarrerak eta gastuak aurreikusi ditu. Sarreretan salmentak, publizitatea, zerbitzuak, beste diru sarrerak, sarrera finantzarioak eta ez ohiko sarrerak bereizi ditu. Gastuetan, berri, erosketak, inpresio, banaketa, ekoizpen, pertsonal eta sustapen gastuak ez ezik, zergak, kanpo zerbitzuak, beste hainbat gastu, amortizazioak, dotazioak (berankorrek ordaindu gabeko fakturak) eta gastu finantzarioak ere aurreikusi ditu.

UKT udaleko, Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko betebeharretan egunean dago. Udaleko ziurtagiria txostenari erantsi zaio. Beste biak enpresak aurkeztu ditu.

Kooperatibak aurkeztu duen dirulaguntza eskaera zuzena da.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (aurrerantzean, ETEL) dio udalaren eskumen propioa dela euskararen erabilera sustatzea, planifikatzea eta dinamizatzea udalerriko eremu askotan.

179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, ETEL garatzeko eman zen. Dekretu horrek dio udalerrian euskararen erabilera soziala handitzeko neurriak planifikatu behar direla, besteak beste, bereziki ikus-entzunezkoetan eta herri mailako prentsan (10. art.). Horretarako udalaren hizkuntza politika hizkuntza normalizatzeko planetan jaso behar da (11.2.a art.) eta udalak euskara eskumenak gauzatzeko badu hitzarmenak sinatzea (11.3.a eta 37.1 art.) eta dirulaguntzak ematea (11.3.c eta 38.1 art.). Gainera, udalak euskararen irudi publikoa eta erabilera sustatu behar duenez, dirulaguntzen oinarritzko araubidearen arabera badu zuzeneko dirulaguntzak ezartzea hizkuntzen erabilera normalizatzeari eta sustatzeari lotutako ekitaldiak antolatzeke (58. art.).

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan bide ematen zaie botere publikoei euskara sustatzeko. Eta herritar guztiei aitortzen zaie hedabideen aldetik euskaraz informatuak izateko eskubidea (22. art.).

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 2an onartu zuen Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024. Bertan legegintzaldiko hizkuntza politikaren lan ildoak eta 4 helburu estrategiko finkatu ziren euskararen ezagutza eta erabilera handitzen jarraitzeko, hizkuntza eskubideen bermean aurrera egiteko eta euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzaz sendotzeko. Euskararen erabilera handitzen jarraitzea 2. helburu estrategikoan jasota dago eremu digitalean eragitea eta aurreikusitako azpi-ekintza da hedabide guztietan euskararen presentzia eta erabilera handitzea, bereziki online argitaratutakoetan.

Euskararen Aholku Batzordeak 2015ean Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (aurrerantzean, ESEP) diagnostikotari buruzko AMIA dokumentuarekin osatutako argitalpen eraberrituan sentsibilizazioa eta motibazioa esparruan, besteak beste, komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea eta herritarrengan eragitea, batez ere gazteengan, sarera informazio bila euskaraz jo dezaten neurriak jaso zituen.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 11n onartu zuen ESEP. Plan horren helburu nagusia da euskararen erabilera indartzea. Hizkuntza plangintza horren helburu estrategikoak dira euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikadura. Euskararen elikadura liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak esparruetan gauzatzen da.

ESEP 2020-2023 udalbatzak 2019ko abenduaren 27an onartu zuen. Hedabideen esparruan horien ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea aurreikusi zen. Neurri hori bideratzeko onetsi zen komunikabideen arteko elkarlan egitasmoak bultzatzea, horien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte eragina handitzeari begira. Ekintza hori gauzatzeko UKTri laguntza ematea jaso zen.

Udalbatzak 2023ko abenduaren 14an onartu zuen 2024ko aurrekontua. Euskara arloko dirulaguntzetan jaso zen UKTri 45.150,00 euroko dirulaguntza ematea informazioa euskaraz zabaltzeko. 2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan laguntza izendun hori jaso da eta laguntza horren bidez udalak lortu nahi duen ondorioa da Azkoitian euskara sustatzea hedabideetan.

38/2003 Lege Orokorrak, azaroan 17koak, Dirulaguntzei buruzkoak xedaturikoaren arabera aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak era zuzenean eman daitezke (22.2.a art.). Dirulaguntza horiek hitzarmen bidez arautuko dira (28.1 art.).

Hitzarmena sinatzeko ezinbestekoa da eskatzaileak aurreko ekitaldiko dirulaguntza zurituta izatea (5. x.). UKTk 2024ko otsailaren 12an emandako Alkatetza Dekretuz zuritu zuen udalak 2023an emandako dirulaguntza.

Euskara teknikariak indarrean dagoen legeria eta Eusko Jaurlaritzako helburuak eta lan ildoak eta udaleko ESEP planean onartutakoa betetzeko proposatzen du ekitaldiko aurrekontuan UKTrentzat aurreikusitako 45.150,00 euroko dirulaguntza izenduna kooperatiba horri onartzea. Eta Udala eta aipatutako kooperatibaren arteko hitzarmena sinatzea 2024ko dirulaguntza arautzeko jarraian zehaztutako testuaren arabera:

AZKOITIKO UDALA ETA UROLA KOMUNIKAZIOA TALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN
ARTEKO HITZARMENA

Azkoitia, 2024ko uztailaren xxa

BILDU DIRA

Alde batetik, Ana Azkoitia Urteaga, Azkoitiko Udaleko Alkatea eta P-2001800-H IFK zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, Ihintza Elustondo Leunda (NAN 44331057Y), IFK F-75221226 duen Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea erakundearen izenean eta haren ordezkaritzan, helbidea Soreasu, 1, 20730 Azpeitian duena.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ADIERAZI DUTE

I.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioari aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta dirulaguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak irabazteko asmorik gabeko elkartea da, 2019ko ekainaren 4an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorrean 2795 orri zenbakian inskribatuta dago.

III.- Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartek, Azkoitiko herritarrei euskararen normalizazioa bideratzeko hainbat ekintza desberdin eskaintzen dizkie.

IV.- Lankidetzak hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartek jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkarleen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Dirulaguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, **UKTren egitasmoa 2024** finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.26 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako dirulaguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENEA: Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2024. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, aipatutako kooperatibak aurkeztu duen programa aurrera eramanez: UKTren egitasmoa 2024 hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programak sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke dirulaguntza.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteari BERROGEITA BOST MILA, EHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROKO (45.150,00 €) dirulaguntza emango dio programan aurreikusitako ekintzetarako, 2024ko udal aurrekontuko partida honetatik: 3300.480.335.00.05. Dirulaguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarrekin dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2024ko programa.
- 2024ko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.

Aurkeztutako programaren arabera, Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarrekin UKTren egitasmoa 2024 eramango du aurrera.

HIRUGARRENA: Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarrekin ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Azkoitiko Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorrak (GAO, 54 zk., 2023ko martxoaren 20a) zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala ere, Azkoitiko udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik ondorengo baldintzak:

1. Polizia Zuzendaritza Nagusia: Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena.
2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak: Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.
3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

Gainera, Azkoitiko udalak egiaztatuko du, udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela.

LAUGARRENA:

- a) Aurkeztu den programaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalen laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalen Logoarekin batera.
- b) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Euskara sailari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa ...).
- c) Iragarkiak, oharrak eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- d) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

BOSGARRENA: Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako programaren izaerari erantzuteaz gain, dirulaguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastua diruz laguntzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

5.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legeko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

5.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako programan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

5.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien % 10 baino handiagoa.

2024ko abenduaren 31n amaituko da dirulaguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, dirulaguntza emateko helburua bete duela zurriz eta jasotako dirulaguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- Jarduera memoria, dirulaguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen.
- Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan froga balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Euskara sailak dirulaguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagiriaren lagina begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.
- Jaso-izanaren egiaztagiria begiratu da, 300 eurotik gorakoak direnak eta PFGZren atxikipena egin den egiaztatuko da. Gainera, igorle beraren jaso izanaren egiaztagiria aztertuko dira eta PFGZren atxikipena duten egiaztatuko da, betiere igorlearen kopuru metatua 300 eurotik gorakoa bada.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

SEIGARRENA: Dirulaguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko dirulaguntza zurrututa izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatuz gero, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

ZAZPIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin, eta Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Elkartearen gainontzeko sarrerekin, betiere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, dirulaguntza murriztuko zaio Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteari.

ZORTZIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartean lanean ari diren langileez eta aipatutako kooperatiba izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartek.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak Izaera Pertsonaleko Datuen eta Babes Digitaleko 3/2018 Lege Organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke aukeraren inguruan.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak Dirulaguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMAIKAGARRENA: Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitraje konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkartek dirulaguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, 4. klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Ana Azkoitia Urteaga
Azkoitiko Udaleko Alkateak,

Ihintza Elustondo Leunda
Urola Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarteko
presidentek,

Txosten honek bere ondorioak izan ditzan,
Azkoitian, 2024ko uztailaren 1ean.”

ERABAKI DUT



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

LEHENA: Urola Komunikazioa Taldea Kooperatiba Elkarteari 45.150,00 euroko dirulaguntza onartzea.

BIGARRENA: Azkoitiko Udala eta Urola Komunikazioa Taldea Kooperatiba Elkartearen artean dirulaguntza hori arautzeko hitzarmena sinatzea, betiere Euskara saileko txostenean ezarritakoaren arabera.

HIRUGARRENA: Dirulaguntza 3300.480.335.00.05 partidatik ordaintzea.

LAUGARRENA: Hitzarmena sinatutakoan, dirulaguntza ordainketa batean egitea.

BOSGARRENA: Urte bukaeran dirulaguntza hori Euskara sailak ekitaldian emandako beste dirulaguntza guztiekin batera Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea.

SEIGARRENA: Erabaki horien berri interesatuari eta Kontu-hartzailletza atalari ematea.

Agindu eta izenpetzen duena Alkate-Udalburuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua,

ALKATE-UDALBURUAK

**Nire aurrean
IDAZKARIAK**



EKS | CSV: ESKUc4c68029-0d6a-4d35-9640-596ea150a594

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024CONE0003-Ebazpena/Resolucion (UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP.